



Pil-pilean

TRAILBLAZER

Soraluzeko hilabetekaria
2023ko urtarrila - 394 alea

DEMOGRAFIAREN
BILAKAERA SORALUZEN
2001-2021
**BIZTANLE KOPURUA
BEHERANTZ**





PIL-PILEAN 394

2023ko urtarria

Azaleko argazkiaren egilea:
Fernan Oregi.

Aurkibidea

- | | | |
|----|--|--|
| 4 | Elkarrizketa Viktoriano Etxabe abadea | IRITZIA |
| 6 | Begira Abesbatzaren lehen argazkia | 3 Neuretik David Lindemann <i>Energia burujabetza</i> |
| 8 | Zer berri Aktualitateko albisteak | 16 Gutunak Oskar Aldazabal <i>Santa Ana 2ko etxea</i> |
| 14 | Ugaraxo | 16 Komiki tira |
| 18 | Erreportajea Demografiaren bilakaera Soraluzen | 17 Hausnarketa Demografiaren bilakaera |
| 25 | Kirola Iñaki Goenaga entrenatzaile pertsonala | 17 Puntua Maite Garmendia <i>Hau ez da herriari errieta</i> |
| 26 | Kultura Jose Ramon Piñeiroren liburuak | |
| 28 | Sakonean Suhagamer04 eduki sortzailea | |
| 30 | Zerbitzuak Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... | |



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

 **SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko
UDALA**

Energia burujabetza



DAVID LINDEMANN

Aurrekoan argindarrrik gabe esnatu ginen kaleko bi portaletako bizilagunok. Iberdrolakoak ez ziren berehala agertu, eta gaiaz berriketan hasita, "bizkor konpon dezaten, etxean den-dena elektriko daukat eta. Lehen, txapak geneuzkan etxe hauetan; horiek beti funtzionatzen zuten", esan zidan ondoko portaleko batek. Agerian geratu zen ez dugula esku artean ezer argindar enpresarekiko mendekotasuna baino (eta hilabetean behin, faktura).

Pil-pilean dagoen gaia da energia burujabetza. Madrilgo burtsan kotizatzen duten, energia mundu merkatuetan salerosi eta ehunka miloi euroko energia proiektuak Real Madrileko VIP palkoan negoziatzen dituzten enpresekiko mendekotasuna gainditzeko, Plazentzian makro-errotak eraiki nahi dituen, Florentino Perezen senide batena den Capital Energy bezalako enpresa haiekiko mendekotasuna gainditzeko, energiaren ekoizpena eta banaketa gerturatzea planteatzen da orain lelo horren pean, herriko edo eskualdeko kooperatiben eskuz. Eta hobe da, zalantzarik gabe.

Argindarra joan zitzaigun goiz hartan, bi kamioitzar ikusi nituen pasatzen, erremolke eta guzti, Plazentziako biomasa zeramatanak, urruneko industrialde batean papera egin dezaten. Edo pelletak, beharbada, etxeak berotzeko sistema moderno eta ekologikoak elikatzeko. Gasolina gastatu zuhaitza mozteko, garraiatzeko, urruneko industrialde batean pelletak lehortu eta prentsatzeko, plastikoetan biltzeko. Baita gero guri saltzera berriz ekartzeko ere, gasolina. Gehi horretarako behar den azpiegitura, kamioiak, eta abar. Haize-errota bat eraikitzeko, berdin: mendiko pista bat egin, piezak egin eta ekarri, kobrezko kableak... eta plaka fotovoltaikoek dituzten piezetan, bost kontinenteetatik ekarritako osagarriak izango ditugu. Deslokalizazioaren eromena nonahi.

Bertako energia erabili beharko genuke, bai. Eraikitzeko suntsipena eta energia-gastu ikaragarria ekartzen duten haize-errotena baino gehiago, erreken indarra, pentsatzen dut, Plazentzian aspaldian egiten zen moduan. Egin badaiteke, egin dezagun. Bitartean, bizilagunak dioenarekin bat nator. Txapa bat nahi dut. Modelo Bilbao. Berotan eta burujabe.

**"EGUZKI PLAKEN
PIEZETAN, BOST
KONTINENTEETATIK
EKARRITAKO
OSAGARRIAK"**

“Bizitzan garrantzitsuena da zer egin asmatzea”

TESTUA ETA ARGAZKIA UBANE MADERA ZANGITU

Viktoriano Etxabe Aginagalde (Itziaroko Urain baserria, 1963), San Bartolome egunetik da Elgoibarko parroko eta abuztuaren 25etik, Soraluzekoa. Arroan bizi da, familiarekin, oso pertsona "familiarra" dela azpimarratuta., "ama, arreba, loba... lobarekin pipa pasatzen dut!", dio.

Twitterren oso ezagun egin da zure bideo bat.

Gabonetan kalejira egin genuen Elgoibarko elizan. Giro berezia zegoen. Rosa begiraleak esan zidan neu joanda ere, jendea ez zela mugitzen elizatik. Horrek poza ematen du. Niretzat Kristau fedea alaitasuna da. Gure Aita Santu Frantziskok ere ondo esaten du hori. Itxaropena, antropologikoki positiboa da.

Aldiz, 2018an ezagun egin zinen Gotzainari Hondarribitik kentzeko eskatu zeniolako Alardearen ondoren.

Esperientzia gogorra izan zen. 2004an, diakono modura Legazpira bidali ninduten; hura zerua izan zen. 2014an, berriz, Hondarribira bidali ninduten. Jendea oso jatorra, oso atsegina da han. Baina Jasokundeko Amabirjinaren egunean gauzak asko berotu ziren eta 2018ko irailaren 8ko Alardea oso-oso bortitza izan zen. Irailaren 10ean, berriz, izaten da 1638ko setioan hildakoen aldeko meza. Denak han zeuden eta nik esan nuen elkarrekin hitz egiteko ariketa egin behar zela; baina batzuei min handiena egin ziena izan zen nik esatea horrenbeste urteko gatazka, leku guztietan sufrikarioa eragin duena, hori izan behar al zen jaiotzear zeuden hondarribitarrei utzi behar dieguna. Gero, hori bai, Jaizkibel konpainiakok omenaldia egin zidaten eta saria eman.

Bi herritako parroko izateak zein eragin izango du?

Abaderik ez dago eta ahal den bezala moldatu beharko dugu. Beti ez nahi dugun eran, baina jendeak badaki ondo zer datorren eta jendeak oso ondo ulertzen du.

Akaso emakumeei zirrikitua laga ezkeru...

Neu, moral aldetik anglikanoa naiz. Erabaki behar duenak erabakitzen badu emakumeak apaiztea edo apaizak ezkontzea, ez dut batere arazorik. Baina ondo ezagutzen dugu eliza Evangeliko luterano alemana, oso eliza serioa da. Han dena

ahal dute egin, baina hala ere, guk baino apaiz izateko bokazio (jende) gutxiago dute. Fedearen krisia dago.

Krisia dago?

Bai eta ez da oraingoa. Jaungoiko ikusezin horren irudia egiten zaigu sinesgaitza. Mendebaldean horrela gertatu zen. Judutarrekin ere horrela gertatu zen. Eta musulmanak ere hortik datoz. Hemengo gazte askok ez dute sinisten. Identitate bezala erabiltzen dute batzuk, normala da. Baina Jaungoikoa esaten dugun hori krisian dago. Kuadrillan baditut pertsona onak, ni baino hobek, nahiz eta sinistu nahi, ezin dutenak sinistu.

Zeuk, berriz, laiko zinela ikasi zenuen Teologia.

Bai, Filosofian eta Teologian lizentziaduna naiz. Erizaintzan diplomaduna ere bai. Segituan konturatu nintzen hura ez zela niretzat, oso gogorra da. Baina ikuspegi berezia eman zidan. 2002an, berriz, Donostiako Seminarioan sartu nintzen. Han nengoela, Antropologiako kursoetara jaisten nintzen. Hori ikasi nuen gusturen. Han Jesus Mari Susperregi apaiza ezagutu nuen; oso aberasgarria zen eta da gizon honen ikuspegia.

41 urterekin apaiztu zinen, hemen ere, Mikel Santiago 49 urterekin apaiztear da. Ezohikoak biak.

San Pablo berak esaten du: *probatu ezazu denetik eta onenarekin geratu*. Nik uste dut bizitza polita dela, Jaungoikoaren erregalu handi bat, familia, herria, natura... Begiratu, ikusi zer dagoen, eta, apaiz sentitzen bazara, ba aurrera. Garrantzitsuena da zer egin asmatzea: ezkondu, ez ezkondu, apaiztu, ez apaiztu, hau edo beste egin... Baina asmatzea. Nik, adibidez, asko bidaiatu dut apaiztu aurretik.

Zeuk asmatu duzu?

Bai. Oso zorionsua naiz.

Asko bidaiatzeaz aparte, hizkuntza asko ere badakizkizu...

Euskalduna naiz. Baina ezkontzak eta bataioak atzerritarrenak ere egiten ditut eta Erasmusi esker, denetik dago. Behin, Meagasen, bost hizkuntza erabili nituen ezkontza bat egiteko.

Laugarren destinoa duzu Soraluze. Azkena?

Izendapena sei urterako da.



Momentuko poza despedidakoan

ARGAZKIA: JUAN FERNANDEZ. **TESTUA:**
EGOITZ UNAMUNO.

Urtarrilaren 8an, eguerdiz, Gaztelupe Tabernaren agurreko jaia egin zuten taberna barruan. Kanpoan euria eta hotza ziren bitartean, taberna barruan, elkarren berotasunean, okasio espezialetan sortu izan den giroa sortu zen berriz. Josune Aramendi eta Eneko Beretxinaga bertsolariek momentuari lotutako berba hoskidez bete zuten taberna eta atzetik, musika onaren eta pasioaren lurrunez berotu zuten giroa Bikustik taldeko Jonek eta Patxik. A ze giroa! A ze despedida! Adiorik ez, Gaztelupe!

*Biharamun luzea
du bezpera motzak
betirako leku bat
momentuko pozak.
Musika sortzen badu
bi ezpainen hotsak
kantari harrapatu
gaitzala heriotzak.
(Josune Aramendi)*







Mikel Irizar, Iker Adazabal eta Xabier Igartua jardunaldian.

Energia kudeatzeko eta ekoizteko erak

Kontsumoa murriztu beharra eta burujabe izatearen garrantzia mahai-gainean jarri zuten energia jardunaldian

Urtarrilaren 18an, Karakate Bizirik plataformaren eskutik, energiari buruzko jardunaldia egin zen Herri Antzokian.

Mendigaineko aerosorgailuen proiektua gerarazteko plataformaren ekimenaren helburua zen erakustea gure

mendiak apurtzen hasi aurretik, badaudela energia ekoizteko edo energia beste era batera kudeatzeko alternatiba asko eta asko, gaur gaurkoz dagoeneko martxan daudenak eta funtzionatzen dutenak, urrutira joan gabe, gainera.

Lau bide

Hala, energiaren bueltan garatzen ari diren lau esperientziaren berri eman zen: Elorriko energia komunitatearen sorrera eta garapena; Oñatin energia sortzeko, banatzeko eta merkaturatzeko dituzten baliabideak eta erronkak; Sologoeneko zentral hidroelektrikoaren emaitzak eta funtzionamendua eta Orexako Udalaren lana, eguzki-energiarekin lotutakoa.

Karakateko zentrala

Horrekin batera, Karakateko zentralaren proiektuari buruzko azken informazioa partekatu zuten. Ingurumen ebaluaziorako prozeduran dago hura. Hasierako dokumentu eta ebaluazioa egin zuen Green Capital enpresak; ondoren plataformek, mendi taldeek eta udalek ekarpenak egin zituzten; gero Jaurlaritzak enpresari, 2022ko urriaren 6an jakinarazi zion Ingurumen Eraginaren Azterlana egiteko zer beste izan behar duen kontuan. Enpresak 12 hilabete ditu behin betiko txostenak aurkezteko.



Burujabetza eta komunitateak

MIKEL IRIZAR ELORRIO

Elorrion, elikaduraren inguruan sortutako komunitate bat abiapuntutzat hartuta, energia komunitatea sortu eta garatzen ari dira, Goiener bidelagun dutela eta Europatik bideratzen ari diren bultzada ekonomikoak baliatuz. Komunitateko kide izango dira herritarrek, Udala

eta herriko enpresak, besteak beste.

Energia kontsumoa murrizteko neurriak hartzeaz aparte, energia ekoizteko bideak landuko dituzte. Bestelakoan artean, uste dute, multinazional erraldoiek, tartean energetikoek, gaur egun, tokian tokiko gobernuek baino botere

handiagoa dutela, ondorioz baita erabakimena ere.

Horregatik, ezinbesteko ikusten dute burujabetzaranzko bidea. Ildo beretik, uste dute energia ekoizpen anitza garatzeak instalazio handiak ekiditea ekar dezakeela eta instalaziook herriaren beharretara dimentsionatutakoak izan behar direla, eta ez irabazi ekonomikoak lortzeko pentsatutakoak.



Herrian sortu eta herrian banatu

XABIER IGARTUA OÑATIKO UDALEKO OGASUN ZINEGOTZIA

Oñatin, enpresa publikoen bitartez sortzen dute energia eta herritarren artean banatu ere bai. Herriko energia domestiko guztia asetzeko beste ekoizten du Oñatiko Ur-jauziak enpresa publikoak, uraren indarra baliatuta. Herrian sortutakoa bertako enpresa batek banatzen du,

Oñargik. Orain, energia merkaturatzearen kontrol publikoa eskuratzea dute erronkatzat, herritarrek energiarengatik prezio justua ordain dezaten (gaur egun, merkatuak ezarritako prezioa ordaintzen dute) eta herrian bertan itxi dadin energiaren zikloa.

Bestalde, Oñatiko etxeetarako energia guztia herrian bertan ekoiztu arren, hori ez da nahikoa Oñatin (industria eta bestelako azpiegiturak aintzat hartuta) dituzten energia beharrak asetzeko. Beraz, bide horretan ere pausoak eman beharra dagoela uste dute, energia enpresa handiekiko dependentzia gutxitzeko, besteak beste, industriaren ekoizpen ereduak birpentsatuz.



Sologoengo zentral hidroelektrikoa

IKER ALDZABAL ALKATEA

Soraluzen, Udala da Sologoen zentral hidroelektrikoaren jabe, 2017tik bere osotasunean. Osintxuko presatik ura hartu eta zentralera bideratzen da, han, Kaplan turbinaren bitartez, indarra sor dadin.

Gaur egun, herriko eraikin publikoek (kiroldegia, eskola, EPA, futbol zelaia, Itxaropena,

Udala, musika eskola, Haurreskola, Udaltzaingoa eta merkatu plaza) kontsumitzen duten energiaren %33a ekoizten du, gorabehera gutxi batzuekin.

Sologoenen sortutako argindarra tentsio altura bideratzen da. Beraz, energiaren merkatu orokorrera doa. Horrek, hori bai, etekinak

ematen dizkio Udalari, besteak beste, zentrolean bertan berrinbertitzen dituenak. Soraluzeko Udalaren erronketako bi dira argindar hori zuzenean herriko eraikinetara bideratzeko sistema lantzea, argindarra merkeago ordainduko zukeelako Udalak berak eta energiaren kontsumoa aurrezteko zein energia produzitzeko bestelako sistemak erabiltzea.

Orexako proiektu energetiko soziala

Orexako Udalak plan bat jarri zuen martxan orain 8 urte herria bizirik mantentzeko, bi helbururekin: gazteak herrian geratzea eta herriko enpresei laguntzea. Hainbat ildotan hasi ziren lanean; horietako bat energiarena izan zen, burujabetza energetikoa ipar. Horretarako, besteak beste, energia berriztagarrien kooperatiba energetikoa eratu

dute, Goiener bidelagun dutela. 2018an lehen eguzki panela jarrita, hiru urtean hiru ekoizpen zentro jarri dituzte abian; ostatuan, bertako autokontsumorako; frontoiko estalkian, 52 erabiltzailearen artean banautuz horko aurrezpenak; eta, Oihan Txiki kooperatiban, lantegirako eta etxe baterako energia sortuz eta kooperatibaren

etorkizuneko eraikinak ere hortik jasoko du.

Gaur egun, herrian erabiltzen duten argindarraren erdia eguzki panelen bidez lortzen dute. 517 zuhaitzek atmosferatik xurgatzen duten CO2 kopuru bera aurrezten dute eta gastuan aldea nabaritzen dute. Herritar guztien artean erabaki dute aurrezpenok nola banatu: zati bat enpresei eta beste zatia familia zaurgarrienei.

ITURRIA: TEKNOPOLIS



Jordina Arnau eta Mari Seara.

Inurrien besarkada bizitzari

AINARA ARGOITIA BARREN

Lasarte-Orian sortu zuten Izan Iñurri elkartearen izatea Debabarrenean zabaldu nahi dute, inurri tribuaren indarra ezinbesteko ikusten dutelako minbiziaren kontrako borrokan.

Minbiziaren aurkako tratamendua jasotzen ari zen garaian ezagutu zuen Mari Searak (Deba, 1972) Jordina Arnau (Selva del Camp, Katalunia, 1991), eta zer den bizitza: sendagiria jasota pozarren onkologikotik irten zen unean jakin zuen Jordinari bularreko minbizia diagnostikatu ziotela. 2019ko uztailaren 4a zen. Berarekin gelditu nahiko lukeela esanez hitzordu eske ari zitzaion laguna whatsapppe.

Gaixotu zenean berak falta izan zituen erreferente haien bila ari zen orain laguna. 28 urte bete berriak zituen Arnauk, eta Kataluniatik Euskal Herrira bizitzera iritsi berria zen. Gaztea zen, familian ez zuen minbizia kasurik izan aurrez, eta horregatik seguraski, ginekologoak ere

mamurik ez ikusteko esan zion, bularrean gogortasun bat sentitu zuela esanez ikaratuta joan zitzaion lehen aldian, baina iritsi zen "hostiakoa". "Denbora galduarazten ari nintzaiola ere sentiarazi zidan, baina insistitu eta biopsiaren emaitzekin batera iritsi zitzaidan gandanbatekoa. Kaka eginda nengoen. Aukeratu ez nuen mundu baterako VIP sarrera jaso nuen, errusiar mendiaren itxura duen eta bizitza osoa aldatzen digun mundurakoa, eta eskutik heldu eta bere prozesua bizipenetatik kontatuko zidan norbait behar nuen, minbiziaren inguruan dena delako oso estereotipatua, denak dirudielako beltza, oso homogeneoa eta heriotzari oso lotua; beste diskurtso bat behar nuen", azaldu

du Arnauk. Minbizia inguratzen duten tabuak uxatuko zizkion norbait nahi zuen, kontatuko ziona bazekiena, minbizia marroi handia dela, baina esango ziona, baita ere, sarri isiltzen dena: minbizia duen bitartean pertsona hori bizirik dagoela, eta beraz, bizitzan egin dezakegun dena egin dezakeela: bizi, negar, barre, maitatu, desiratu... "Minbiziak hil daiteke, bai, eta tratamendua oso gogorra da, baina zergatik mugatu behar gara gaixotasuna biktima paperean bizitzera? Nik ez nuen besteen errukiz bizi nahi; izango zen izan behar zuena, baina bizirik nengoen eta bizi nahi nuen; eta hala egin nuen!", dio horren harira Searak. Minbiziak arinkeriaz hitz egitea leporatu dietenik ere izan dela aitortu du Arnauk, eta azpimarratu du: "Ez diogu garrantzirik kendu nahi ezerri. Amorragarria eta gogorra da hau dena oso, eta errespetatzen ditugu, jakina, minbizia bizitzeko era guztiak, baina subjektu aktibo garelako defendatzen dugu guk". Diskurtso eta egiteko hori du Izan Iñurri elkarteak sorreratik. Julene Illaramendi, Miren Cuerdo eta Jone Zabala lasartearrek sortu zuten taldea, Illaramendiren ama [Eba Elexpuru] minbiziak hil eta bi urtera, eta Elexpuru gorpuztean tatuatuak zituen "inurri langileei" zor die elkarteak izena.

Patriarkatuaren itzala

Sortzaileek aitortua dute pretentsio handirik gabe sortu zutela elkarte. Orain, berriz,

IZANINURRI.COM
WEBGUNEA ZEIN
INSTAGRAMEN KONTUA
DITUZTE @IZANINURRI

"eklosioan" dago. Iazko otsailean batu ziren talde eragilerak Jordina Arnau eta Olatz Mercader, eta geroztik, antolatu dituzte bertso-saio solidarioak, biluztu dira eta sortu dute egutegia, sortu dituzte podcastak Spotifyn [(MIN)Bizi euskaraz eta Dragón Cáncer gaztelaniaz], antolatu dituzte formazio saioak eta arteterapia saioa, tematu dira dibulgazioan eta ikerketan, eta ehundu dute minbizia zuzenean edo zeharka bizi izan dutenen sare bat, elkarri entzuteko, elkar zaintzeko eta beren beharrei erantzuteko. Sortu dute "espazio libre, seguru eta konfiantzazkoa" minbizia normalizatzeko eta taburik gabe hitz egiteko. Eta egiten dute hori dena, ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik, osasuna ere, gizona zkeen ikuspegitik aztertzen delako gaur, eta ondorioz, kontsultategian deseroso sentiarazi dituzten galderak eta erantzunak ere jaso dituztelako sarri. "Emakumeok programatuak izan gara gure gorputzak besteek ikusten eta sentitzen dituzten bezala ikusteko, guk nola sentitzen ditugun eta nola erabili nahi ditugun ikusteko baino gehiago", hasi du haria Searak. "Dena dago prestatuta ama izateko eskubidea bermatzeko. Esterilizazioa eragiten du tratamenduak, baina hasieratik esaten dizute obuluak gordetzeko aukera dagoela. Desira sexualik izango dugun galdetzea, ordea, ekuaziotik kanpo gelditzen da. Ez da horren inguruan azalpenik ematen", gehitu du ondotik Arnauk.

Gaur-gaurkoz, bularrekoa da minbizirik zabalduena emakumezkoetan eta prostatakoa gizona zkoetan, baina nabarmendu dute gizona zkeen sexu beharrik asetzeko ikertu beharreko dena ikertu den arren,



Jordina eta Mari

oraindik ez dela ikertu bularreko minbiziak zer eragin duen emakumeen sexualitatean. "Gurea garrantzirik gabeko kastrazio kimikoa da, gure gorputzak erreproduktzioarako eta besteen desirak asetzeko daudela uste baita", esan du Arnauk. Horregatik uste dute, adibidez, falta dituztela bular bakarreko pertsonen erreferentziak eta bihurtzen dela ilea erortzea benetako arazo askorentzat.

Erabili zuen ile-ordea Searak ere eta protesia jartzeko ebakuntza ere egin zioten bularra kendu ondoren. "Ematen du bularra berregitea zikloa ixteko ezinbesteko pausoa dela. Nik ere egin nuen saioa, baina ez nengoen gustura nire gorputzarekin, eta gorputzak ere ez zidan onartu protesia». Garbi dio emakumeoi inposatzen zaizkigun estereotipo estetikoek eragiten dutela halako

IKUSPEGI FEMINISTATIK LANTZEN DUTE DENA, OSASUNA ERE GIZONEN IKUSPEGITIK AZTERTZEN DELAKO

erabakietan. "Bularra galtzea ez da beste gorputz atal bat galtzea bezalakoa, eta horri buruz hitz egin beharra dugu", zehaztu du.

Iñurrin argi dute minbizia ez dutela beraiek aukeratu, baina bidea nola bizi nahi duten aukeratzeko eskubide osoa dutela.

Osasungintza publikoan jarri dute begia. Onkologikoan artatu zituzten. Oso profesional onak topatu zituzten, eta "arreta gertukoa eta konfiantzazkoa" jaso zuten, baina tratamendu onkologikoaz gain, kimioterapia, radioterapia eta kirurgiaz gain alegia, beste tratamendu edo profesional batzuen laguntza ere behar izan dute -psikologoak, nutrizionistak...- eta hori dena arlo pribatuan bilatu behar izan dute. Osasungintza publikoaren "eskatea" ere aipatu dute: "Gure inurri lagunek nabarmen igarri dute, bereziki pandemiatik hona". Horretarako osatu dute inurritegia. Emakumeak dira gaur-gaurkoz elkartearen bueltan dabilzkanak eta ematen die horrek zer pentsatua, baina nabarmendu dute atea zabalik dutela batu nahi duenarentzat. Tribuaren indarra ezinbestekoa dutela diote, eta azpimarratu dute ez direla gerlari: "Hobe besarkada eman bizitzari, energia borroka hutsaletan erabiltzeak ez duelako zentzurik".

Ulertzen dute, hala ere, aldamenekoen eta ingurukoen asmatu ezina. "Minbizia izan dudan arren, neuri ere gertatu zait beste bati zer esan ez jakitea", aitortu du Arnauk, baina badute gomendio bat, Maider Estensoro inurrikidearen ahotan entzun daitekeena beren Facebookean. "Ez bota begirada errukitsurik. Ez badakizue zer esan, ez esan ezer. Eman besarkada bat edo laztan bat. Bidelagun izatea nahikoa da; egote hutsa".


1.100 bisita egunean

2022an Plaentxia.eus-en audientziak gora egin du berriz eta egunean 1.100 bisitaren langa gainditu du.

2022an, Plaentxia.eus-ek pandemia garaian lortutako audientzia datuak berdindu zituen ia. Iaz, webguneak 414.266 bisita jaso zituen, 2021ean baino %3,35 gehiago. Batez beste, egunean 1136 bisita jaso zituen, mila eta ehun bisitako langa gaindituta.

Albisterik ikusiena Andramari jaietako zezenen inguruko bideoa izan zen eta haren ostean, ekainean herria atsekabetu zuen motor istripuaren berria, noski. Haien atzetik, labanaz egindako erasoaren ostean egin zen elkarretaratze jendetsua, txirrindulari batek San Andresen izan zuen istripua, Eroskiren irekiera...

Iaz, erredakzioko lan taldeak ahalegin berezia egin zuen ikusentzunezkoen lanketa



Zezena Andramari jaietan.

hobetzen eta 2023an bide berean jarraitu nahi du. Horrekin batera, Pil-pileanek herriko komertzioen, enpresen eta elkarten berri ematen duen 0KM Gida ere berrituko du, Bizikalarekin eta Udalarekin elkarlanean.

Albisterik ikusienak

2022an zehar ikusienak izan diren hamar albistek dira ondorengo zerrendan ageri direnak.

1. Zezenen harrapaketak Andramari jaietan 2667 ikustaldi
2. Motor istripuaren albistea 1941 ikustaldi
3. Soraluzen beldur barik elkarretaratzea 1696 ikustaldi
4. Bizikleta istripua San Andresen 1651 ikustaldi
5. Eroskiren irekiera 1543 ikustaldi
6. Gaztañerre azokako argazkiak 1530 ikustaldi
7. Ume bat leihotik jausi da 1452 ikustaldi
8. Karakaten eolikak jartzeko proiektua 1408 ikustaldi
9. Jaietako azken egunaren bideokronika 1373 ikustaldi
10. Gaztañerre azoka bideoak 1300 ikustaldi

Apaiz izateko bidean

Urtarrilaren 14an, Mikel Santiago diakono ordenatzeko elizkizuna egin zuten Soraluzeako elizan, Donostiako Gotzaina eta beste hainbat elizgizon bertan zirela. Diakonotza "aipaizgorako bidean eman beharreko pausoa da" eta sei hilabete pasatu ostean, seguruena Arantzazun apaiztuko da.



Bullyngaz eta autoestimua

Otsailean eta martxoan gurasoendako bi hitzaldi eskainiko dira 'Treba Gurasoak' ekimenaren baitan.

Gurasoei zuzendutako bi hitzaldi antolatu ditu Udaleko Haurren eta Gazteen Batzordeak otsailerako eta martxorako, *Treba Gurasoak* formazio zikloaren 2022ko edizioan. Bullynga eta autoestimua dira aurtengo hitzaldietarako aukeratu dituzten gaiak.

Lehen hitzaldia *Bullying-egoerak minimizatzen ingurune seguruak nola sortu* izenekoa, otsailaren 7an, martitzenean, eskainiko du

Izaskun Lopezek, gaztelaraz. Bigarrena, *Seme-alaben autoestimua elikatzen*, martxoaren 14an, martitzenean, eskainiko du Nerea Mendizabalek. Bi hitzaldiak arratsaldeko 18:30 izango dira kiroldegiko Tolarekua aretoan.

Lehen hitzaldian izena emateko epea zabalik dago otsailaren 3ra arte, udaletxeko harrerara deituta (943753043) edo soraluze.eus webguneko loturan sartuta.

664 sinadura erreferendum eske

Gure Deba Ibaiak taldeak urtarriaren erdialdean eman zuen sinadura bilketaren kontaketa amaitutzat eta jakinarazi zuen guztira 634 herritarren sinadurak batu dituela, Udalari erreferenduma antola dezan eskatuz. Taldeko kideek azpimarratu dutenez, eskaerarekin bat egin duten herritarren kopurua "hauteserrodaren %20tik gora da eta azken udal hauteskundeetan botoa eman zutenen %30a". Taldearen asmoa da Udalari sinadurak entregatzea eta erreferenduma antola dezan eskatzea. Udalak, oraingoz, ez du adierazpenik egin Merlin proiektuaren eta presen auziaren inguruan.

Data: Otsailak 7
Ordua: 18:30-20:00
Leku: Soraluze, Tolarekua aretoa
Trebatzailea: Izaskun Lopez de Torre
Nereatzailea: Haur eta nerabeen gurasoentzako
Hitzatzaia: Gaztelania

Doako hitzaldia:
Bullying-egoerak minimizatzen ingurune seguruak nola sortu

Izena emateko: 943 753 043 edo
 Webgunea: soraluze.eus/eu/tramiteak/izen-emateak

GASTOMATIKA
 Gipuzkoako Foru Aldundia
 Euzko Legebiltzaria
 NERABEEN ELKARTEA

IZAGUIRRE
 Igelseritza

Erakin berriak - Kalitateko emaitza
 Erreformak - Era guztiakoa Igelseritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913

ELIZPE
 HORTZ KLINIKA

Zure genakoz horts klinika, punta-puntako teknologiatan lan egiten dugu. Cad Cam sistema berritzailea erabiltzen dugu.

Elizburu, 3. behea
 SORALUZE
 Tel: 943 75 25 67
 Buz: 947 42 78 19
 e-mail: elizpe1@gmail.com

Ordutegia:
 Astelehenerdik ostiralera
 10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00

Armendi
 Jatetxea

Sukalde tradizionala
 Eguneko menua
 Asteburuetan menu berezia
 Karta
 Burduntzian erretako bidotsa
 Ettxeko tritok
 Soufla

Tel: 943 75 10 02

Oporretatik buelta

Opor ostean, ikasteko gogoz beterik bueltatu dira Haur Hezkuntzako ikasleak. 2 urteko eta 3 urteko ikasleak, artaziekin lanean dabilta etengabe. Horrez gain, eraikuntzak ere egiten dituzte eta 3 urtekoak, euren izen eta bokalekin ikerketak egiten dabilta. 4 urteko gelara animalien mozzorroak, liburuak eta laborategiko materialak heldu dira, eta gustura baino gusturago dabilta. Azkenik, 5 urteko gelan, geometria lantzeko eraikuntzak egiten dabilta eta orain dela gutxi jaso duten mahai-jolas batekin disfrutatzen. Ea horren langile eta gozatzen jarraitzen duten denek!





GUTUNAK

Santa Ana 2ko etxearen afera**OSKAR ALDAZABAL**

Santa Ana 2ko etxearen jabeetako bat naizen aldetik, Soraluzeko Udalak izandako portaera salatu nahi dut. Lehenik eta behin, esan, Udalak galdu egin dituela etxe horren harira izandako bi epaiketa. Epaietako baten aginduz, Udalak Santa Ana 2ko bi solairu desjabetu eta balio-justua ordaindu behar izan die jabeei. Beste epaiaren aginduz, berriz, Udala egin behar izan da etxearen eraiste gastuen kargu, guk eskatu bezala. Bi epaietarako irabazi arren, salatu nahi dut prozesuak iraun dituen hiru urteotan, kostu emozional handia pairatu behar izan dugula eta baita kostu ekonomiko ere, prozedura judizialean 8.039 euro ordaindu behar izan baititugu, nahiz eta Udalaren ardura izan etxe horren beheko solairua desjabetu eta tasazioan ezarritako balioa ordaindu, bigarren eta teilatupeko desjabetzeekin egin zuen moduan eta Hirigune

Historikoa Birgaitzeko 2007ko Plan Bereziak dioen moduan.

Xehetasunetan sartuta, 2015ean, Santa Ana 2ko etxearen lehen eta bigarren solairuak eta teilatupekoa desjabetu egin zituen Udalak, haien jabeek eskatuta. Tasazioak ezarritako prezioa ordainduta egin zen desjabetzea, baina Desjabetzeaz Arduratzen den Epaitegira jo ondoren. Gure ustez, Udalak hor ez zuen ondo jokatu, eraikin bat ordenazioz kanpo deklaritzen badu eta desjabetzearekin hasten bada, eraikin osoa desjabetu beharko bailuke. Baina etxearen sotoa eta behe-barrua ez zituen desjabetu.

2015ean, bada, Santa Ana 2ak hiru jabe zituen: Udala eta sotoaren eta behe-barruaren jabeak, tartean neu. Bada, 2015etik, Udalak eraikina zaintzeari laga egin zion eta jabeoi ez zigun konponketaren beharrik jakinarazi. Hiru urte geroago, 2018an, Udalak jakinarazi zigun "eraikina egoera txarrean" zegoela, "bota" egin beharko zutela, "ez zigula kalte-ordainik" emango eta

gainera, "eraiste kostuak gure gain" hartu beharko genituela. Horren aurrean, 2019an, Udalarik bi solairuak desjabetu eta balio-justua ordain zezan eskatu genion, 2015ean egin zuen bezala. Baina, hilabete geroago, Udalak etxearen egoerari buruzko txostena eskatu, eta, etxea ahurri egoeran deklaratzeko espedientea abiarazi zuen eta berretsi egin zuen kostuak gure gain hartu beharko genituela. Hori dela-eta jo genuen epaitegietara 2020an epaitegietara Desjabetzeaz arduratzen den epaimahaiak, bi solairuen desjabetzea eskatu eta haien balio-justua ezarri beharra erabaki zuen. Azaroan ordaindu zigun Udalak balio-justua. Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak, berriz, 2021ean, bertan behera laga zuen etxe-jabeak eraikinaren eraistearen kostuak bere gain hartzea agintzen zuen Alkatetzako Dekretua, horren ondorioz, 2.859 euro ordaindu behar izan zuen Udalak, bere gain hartu eraistearen kostua, eta, baita epaiketa gastuak ere.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



HAUSNARKETA

Bilakaera demografikoa Soraluzen

Nola bizi duzu Soraluzeko bilakaera demografikoa? Populazioa jeistea, jende mugimendua...



BORJA ARISTI
HERRITARRA

"Kanpotik beti etorri izan da jendea. Gertatzen dena da orain gehiago datorrela Espainiatik kanpoko jendea eta egiten duten bizimodua ezberdinagoa dela. Alde horretatik sor liteke nostalgia baina denek ongietorriak izan behar dute. Gu gustura bizi gara hemen".



JESUS MOYA
HERRITARRA

"Herria asko aldatu da, baina kontziente izan behar dugu jendeak mugitu egin behar duela bizimodua bilatzeko. Lehen, Galiziatik, Gaztelatik gentozen eta orain beste leku batzuetatik. Horri esker mantentzen du biztanleria, bestela hustuko litzateke".



NEREA ZAZO
HERRITARRA

"Egia esateko ez nabil asko herrian eta ez naiz asko konturatzen aldaketekin. Duela urte batzuk igarri nuen kanpotik jende gehiago etorri zela. Niri zoragarri iruditzen zait kanpotik jendea etortzea. Bizitza aurrera doa, aldatzen da eta herria ere bai".



MARIA EUGENIA ETXARRI
HERRITARRA

"Faltan botatzen dut garai bateko Plazentziako giroa. Ikusten dut bertako jendea gutxitzen doala. Kontziente naiz etorkinak behar ditugula, baina Soraluzek laguntza gehiago behar du baliabide eta ikasketa maila gutxiagorekin datozenei laguntzeko."

PUNTUA



MAITE GARMENDIA

Hau ez da herriari errieta bat

Beti bizi izan dugu exodoa hirira, ez da gaur egungo gauza, hori jakina da. Historian zehar beti egon da tendentzia bat, edo hobeto esanda behar bat, herri txikietatik hiritara joateko. Askoren aittitta eta amama, beren landa ingurutik, hiri handiek eskaintzen zituzten aukeren bila joan ziren, garai haietan lanera gehien bat. Baina behar hori ez da inoiz joan gure gizartetik.

Azken urteetan, herri txikietan bizitzen ari garen egoerak gazte askorentzako amets gaizto bat dirudi. Nahiz eta askok herrian gelditzea nahi duten, egoerak ez du batere laguntzen, hori dela eta, kanpora joan behar dugu gure bizitzarekin aurrera egiteko.

Herrietatik irteten gara, bertan ez ditugulako hirietan ditugun bezainbeste eskaintza: laboralak, kulturalak, aisialdia... "Zer ondo zinemara joan naitekeela asteazken batean"/"Zer gustora kontzertuetara/ekitaldietara kotxerik gabe joan naitekeela" = erosotasuna ere bilatzen dugulako.

Honekin ez dut esan nahi herri txikietako bizitza gelditzen edo hiltzen dagoenik, baina, zein litzateke hau konpontzeko irtenbidea? Bestela gure herriek "pueblo dormitorio" izaten jarraituko dute.



Biztanleen kopurua beherantz doa

Soraluzeko demografiak 2001 eta 2021 artean izandako bilakaera aztertu du Pil-pileanek, Saretzen proiektuaren baitan. Erroldatutako pertsonen kopurua jeitsi egin da herrian (%6) eta 60 urtetik gorakoen multzoa hazi egin da, baina baita hogeitiki beherakoen kopurua ere.

Testua eta argazkiak: **Egoitz Unamuno**. Grafikoak: **Oier Larreategi**.

Azken hogeitiki urteotako populazioaren bilakaera aztertzearekin batera, gizartearen erradiografia egin dute Tokikomek eta EITB taldeetako hedabideek, modu bateratuan, Eustat (EAE) eta Nastat (Nafarroa) iturri hartuta. Datu kazetaritza lantzea helburu duen lankidetzaren proiektu honen lehen saiakeran, biztanle kopuruari, zaharkitzen doan gizarteari eta jaiotza-tasari erreparatu zaio.

Aurrerantzean ere, hori izango da Saretzen proiektuaren ezaugarri nagusia: datuak modu bateratuan bildu ondoren, horien lanketa zehatza hedabide bakoitzaren esparrura egokitzea. Pil-pileanek Soraluzeko datu orokorrak aztertu ditu eta arloz arloz zenbait testigantza eta analisi gehituz.

Biztanleak galtzen

Soraluzek, aztergai ditugun XXI. Mendeko lehen bi hamarkadetako datuek erakusten dutenez, aurreko mendeko 80ko hamarkadatik zekarren beherantzko joerari eutsi dio - Soraluzeko biztanleriak 70eko hamarkadan jo zuen goia; garai hartan 5.659 biztanle izatera iritsi zen- eta oro har, urtez urte, biztanleak galdu ditu. Hala, 2000tik 2021era herriak 246 biztanle galdu zituen, horietatik gehienak (136) urte bakarrean, 2020tik 2021era bitartean. Jaitsiera hori azaltzen duten faktore demografikoei erreparatuz gero, datuek erakusten dute Soraluzen heriotzak jaiotzak baino gehiago izan direla, eta migrazioei dagokienez, herritik kanpora joan diren pertsonak

Biztanleriaren bilakaera 20 urtean

	2001	2021	Aldea	% Aldea
Deba	5.122	5.437	+315	+6,15%
Eibar	28.440	27.195	-1.245	-4,38%
Elgoibar	10.642	11.384	+742	+6,97%
Ermua	16.699	15.806	-893	-5,35%
Mallabia	1.136	1.180	+44	+3,87%
Mendaro	1.498	2.002	+504	+33,64%
Mutriku	4.818	5.314	+496	+10,29%
SORALUZE	4.084	3.838	-246	-6,02%
DEBABARRENA	72.439	72.156	-283	-0,39%
GIPUZKOA	672.434	718.887	+46.453	+6,91%
HEGO EH	2.635.473	2.854.736	+219.263	+8,32%

gehixeago izan direla etorri direnak baino -aldea oso apala izan den arren-. Horrez gain, biztanleriaren adinari begiratuta, datuek agertzen dute urteotan 60 urtetik gorakoen multzoa hazi egin dela ia bost puntu eta gaur egun biztanleen herena baino gehiago adin multzo horretakoa dela. Faktore horiek sakonago aztertu dira erreportajearen ondorengo orrialdeetan.

Debabarrena, gutxien hazi den eskualdea

Eskualdeko datuei begiratuz gero, ikusten da 20 urte horietan Debabarreneko biztanleria %1 hazi dela: 569 pertsona gehiago – gaur egun, 55.170 lagun bizi dira Debabarrenean-. Hazkundera txikia da. Izan ere, Hego Euskal Herriko beste eskualde eta lurralde batzuek izan dutenarekin alderatuz gero, Debabarrenak izan duen hazkundera apalagoa izan da; Gipuzkoan gutxien hazi den eskualdea izan da, Debagoienaren atzetik (debagoiendarrak %1,9 hazi dira). Hego Euskal Herriari dagokionez: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa batuta, populazioa %8,32 hazi da; Gipuzkoan %6,91.


Bestetik, Debabarrenean jaiotzek behera egin dute eta hil direnak jaiotzek baino gehiago izan dira. Zehazki, 20 urteotan 10.230 haur jaiotzek eta 12.111 pertsona hil. 1.881 lagun gehiago hil dira jaiotzek baino. 2021ean, Debabarrenean, duela 20 urte baino 566 pertsona gehiago bizi dira eta hori izan da kanpotik eskualdera 2.276 lagun etorri direlako –batez ere, Debabarrenetik kanpoko beste eskualde batzuetatik edota EAE kanpotik–.

Erreportaje honetako datu bilketa egin da Eustat eta Nastat iturriak erabilita, eta Tokikomen eta EITBren arteko elkarlanetik sortutako Saretzen proiektuaren baitan. Grafikoen errealizaziorako Flourish plataforma erabili da.

Populazioa %6 jeitsi da 20 urtean

Soraluzek 2001ean baino 246 biztanle gutxiago ditu 2021ean; eta horrek esan nahi du azken bi hamarkadatan bere populazioa -%6 gutxitu dela. Hogei urtean, Soraluze 4.084 biztanle izatetik 3.838 izatera pasatu da 246 biztanle galdua. Batez beste, urtean, hamabi biztanle galdu ditu.

Mugarriak esanguratsuenetakoa 2006koa da, izan ere, herria urte horretan jeitsi zen 4.000 biztanletik behera 2002etik 2009ra iraun zuen jeitsiera aro baten barruan. Ordutik, gora beherak izan dira baina beherako joera nagusitu da, bereziki 2020tik 2021era bitartean: izan ere, urtebete horretan gertatu zen beherakadarik handiena, 136 biztanle galdua. 2021ean, herria 3.838 biztanlerekin gelditu zen. Eustatek eman berri dituen datuen arabera, 2022an Soraluze 3.733 biztanletara jeitsi da, 65 biztanle galdua. Datu horiek argi erakusten dute, azken bi



Biztanleriaren bilakaera Soraluzen. SARETZEN

urteotan, biztanleen galera nabarmen areagotu dela.

Jaitsierarik handiena bailaran
Hala, Debabarreneko herrien artean jeitsierarik handiena izan duen herria da Soraluze. Bailarako zortzi herriei erreparatuz gero, agerikoak dira aldeak. Bailarako hiru herritan, behera egin du herritar kopuruak: Eibarren -%4, Ermuan -%5, eta

Soraluzen -%6. Gainerako herrietan gora; bereziki, Mendaron, %34 hazita, Mutriken %10, Elgoibarren %7, Deban %6 eta Mallabian %4.

12

BATAZ BESTE, SORALUZEK URTEAN 12 BIZTANLE GALDU DITU 2001ETIK.

"Kalitatezko zerbitzuak eskaintzearen alde egiten dugu"

IKER ALDAZABAL ALKATEA

"Faktore demografikoez gain, etxebizitza berrien eskaintzak ere izango du zerikusia. Udalaren esku dagoena etxebizitza sozialak egitea da eta laster, Jaurilaritzarekin elkarlanean, Pascual Churrukako alokairu sozialekoak eraikiko dira eta zaharrak eraberritzeko


laguntzak emango Ezozibidea Berritzen proiektuaren bidez. Gainerakoan, herritarrei kalitatezko zerbitzuak eskaintzearen aldeko apustua egiten dugu (kirol, kultur etb..) eta uste dut daukaguna baloratzekoa dela. Langabetuei zuzendutako egitasmoak ere laster iragarriko ditugu".



Hildakoak gehiago jaiotakoak baino

Jaiotza eta heriotzei dagokienez, azken urteotan Sorluzen hil diren pertsonak gehiago dira jaio direnak baino. Hala, 2001etik 2021era bitartean, herrian 721 pertsona jaio dira eta 946 pertsona hil, jaio direnak baino 225 gehiago. Urte horietako batzuetan Sorluzen, urtean 36 pertsona jaiotzen dira eta hil, berriz, 47. Hogei urteotan, 2019a izan zen jaiotza kopurua heriotzen kopurua baino handiagoa izan zen urte bakarra. Urte hartan, herrian 44 pertsona jaio ziren eta 38 hil. Baina ondorengo bi urteetan, 2020an eta 2021ean, jaiotzen kopurua erdira jaitsi zen eta hildakoena zertxobait igo. Hala, bi urteotan erregistratu zen bi hamarkadetan gertatu den alderik handiena, hildakoen balantzaren aldera, izan ere, 2020an hildakoak 23 gehiago izan ziren jaio zirenak baino eta 2021ean, berriz, 30.

Jaiotza-tasa beherantz



Heriotza eta jaiotza-tasak Sorluzen. SARETZEN

Urteotan heriotza-tasa nahikoa egonkor bada, ez da gauza bera gertatzen jaiotza tasarekin. Urtez urte gorabehera handiak izaten dira eta gainera, bi hamarkadetako bilakaerari begiratuta, joera beherantzkoa da, batez ere, 2016tik aurrera. 2015era arte, jaiotza-tasa %9,32koa izan da, baina 2016tik aurrera, batezbestekoa %6,97ra jaitsi da. 2021eko datuei erreparatuta, Sorluzek

%5,73ko jaiotza tasa izan zuen, Debabarreneko bosgarren altuena. Tasarik altuena Elgoibarrek izan zuen %7,73arekin eta baxuena, berriz, Ermuak, %4,75arekin.

225

HOGEI URTEAN 225 PERTSONA GEHIAGO HIL DIRA JAI O DIRENAINO.

"Biok geneukan argi hiru ume izan nahi genituela"

ÍÑIGO TORRIENTES ETA LAURA CORTES GURASOAK




Íñigok eta Laurak hiru seme-alaba dituzte: Lukas, Gorka eta Elene, sei urte, lau urte eta urtebete dituztenak. Hasieratik adostu zuten hiru ume izan nahi zituztela: "Biok gara hiru anai-arrebako familiakoak eta biok geneukan argi hiru ume izan nahi genituela". Gastuei aurre egiteko, hainbat laguntza

eskatu dituzte "argindarrarendako bono soziala ere bai" baina kexu dira tramiteak "konplikatuak" direlako. "Hiru ume jarraian izatearen abantaila da ez daudela bakarrik eta desanbantaila txikiak diren bitartean kaosa dela", dio Íñigok irrifartsu.

Gero eta migrazio gehiago

Erreportaje honetan aztergai den epealdian, Soraluzen pertsonen migrazio mugimendua da herriko populazioaren gorabeheretan gehien eragiten duen faktorea, mugitzen den pertsonen kuantitatearengatik. Hogeii urteko datuei erreparatuta, gehiago dira herriko alde egin duten pertsonak herrira bizitzera etorri direnak baino, aldea oso txikia den arren. Udaletxeko erregistroaren arabera, hogeii urtean kanpotik 3.791 pertsona etorri dira herrira eta joan, berriz, 3.864 pertsona joan dira kanpora bizitzera, 73 gehiago. Batzaz beste, urtero 190 pertsona etorri dira eta 193 pertsona joan.

2012tik migrazioa areagotu 2012tik aurrera, pertsonen migrazio mugimenduak areagotu egin dira herrian; azken urteotan, pertsona gehiago datoz eta pertsona gehiago doaz. Hala, 2012a izan zen pertsona gehien (268) etorri ziren urtea eta 2021a



Migrazioak Soraluzen nazionalitatearen arabera. SORALUZeko UDALA

pertsona gehien (262) joan ziren urtea..

Aldea nazionalitateetan

Nazionalitateari dagokionez, herrira datozten pertsonen artean nabarmenki nazionalitate ez-espainiarra duten herritarrak dira nagusi (%57) eta doazenen artean, berriz, gehiago dira nazionalitate espainiarra duten herritarrak (%59). 2021ean,

Soraluzen bizi ziren 3.838 biztanleen artean, %69,98ak EAEko jatorria zuen, %16,39ak Estatukoa edo Nafarroakoa eta %13,63ak Estatutik kanpoko herrialde batekoa.

383


BATAZ BESTE, URTEAN 383 ALTA ETA BAJA IZATEN DIRA UDALETXEAN.

"Soraluzen ez genuen alokairuko etxerik topatu"

ASIER IRAETA ETA PAULA CORCOSTEGUI ELGOIBARREN BIZI DIRA

Asier plazentziatarra da eta bere bikotea, Paula, algortarra. Urtebetez Bilbon bizi eta gero, hirian "moldatu ez" eta duela bost urte alokairuko etxe bila hasi ziren eta Elgoibarren topatu zuten: "Soraluzen ez genuen alokairuko etxe bakar bat ere topatu. Kristoren arazoa dago." Orduetik

Elgoibarren bizi dira, "gustura". Duela hiru urte, "etxe berri bat" erosi zuten eta urtebete da Izaro alabatxoa izan zutela. "Egia esateko nik ez dut abantaila berezirik sumatu Elgoibarren bizi naizelako. Hori bai, hemen gehiago erosten dugu herrian denda gehiago dagoelako" dio Asierrek.




Zahartzen ari den herria

Adin tarteen bilakaerari erreparatuz gero, datuek erakusten dute Sorluzeko zahartzen ari den herria dela, erritmoa nahiko mantsoa bada ere. Izan ere, azken hogeit urteetan 60 urtetik gorako biztanleen kopuruak gora egin badu ere, 20 urtetik beherako kopurua ere hazi egin da, hori bai, bigarren multzo hau neurri txikiagoan.

Hirutik batek 60 urte baino gehiago

Hala, 2001ean, Sorluzeko biztanleen %14,62ak zuen 20 urte baino gutxiago; eta 2021ean, %18,19ak; hau da, bi hamarkadatan biztanlerik gazteenen ehunekoak 3,57 puntu egin du gora. 60 urtetik gorako kasuan, baina, gorakada 4,97 puntukoa izan da: 2001ean, biztanleriaren %28,04a ziren eta 2021ean, %33,01a. Dena den, gorabehera handiena 20 eta 59 urte artekoen artean izan da: biztanleriaren %57,34 izatetik %48,8 izatera pasatu baitira; gazteenen eta



Biztanleriaren bilakaera adin tarteka Sorluzen. SARETZEN

zaharren artean dagoen adin multzo horrek 8,54 puntu egin du behera hogeit urtean.

Bailarako batezbestekotik gora

Debarrenean, 60 urtetik gorako biztanleak %30,98 dira eta herriz herriko datuei begiratuta, Sorluzeko 6. postuan dago zortzi herrien zerrendan. Biztanle zaharren tasarik altuena duen herria Ermua da %34,12arekin eta baxuena

duena, berriz, Mendara %24,18arekin. Gipuzkoako batezbestekoa Sorluzekoa baino beheraxeago dago: %31,19; eta Hego Euskal Herrikoa ere bai: %30,25.

%33,01
SORLUZKO BIZTANLEEN
%33,01AK 60 URTE BAINO
GEHIAGO DITU

"Zahartzaroaren gaiak herriko agendan egon behar du"

JUAN FERNANDEZ INTEGRAZIO SOZIALEKO TEKNIKARIA



"Populazioa zahartzeak sekulako aldaketa dakar gizartean baina, orokorrean, oraindik ez daukagu behar besteko kontzientziarik, ez indibidualki eta ez kolektiboki. Herrian baditugu baliabide batzuk baina ez ditugu behar beste aprobetxatzen. Beste arlo batzuetan dagoen

moduan, gai honek ere oinarri sozial bat behar du, horretan pentsatuko duen norbait herrian. Alkarri-rekin ekin genion horri, baina pandemia etorri zen eta dena bertan behera gelditu zen. Gaiak herriko agendan egon behar du datorkigun errealitateari aurre egiteko."

PUBLIZITATEA

Hortz klinika
 Erreal 1
 Tel.: 943 75 16 13

Arlier Alonzo
 Mediku Odontologia
 K.Z. 48.000.501

Katia Gustinne
 Odontologia
 K.Z. 48.001.541

30 urte baino gehiagoko esperientzia
 odontologia, protesiak, ortodontia, odontopediatria, ingurizko estetikak...
 Zerbitzu radiologiko orokorra (DIX):
 ekianerria, orto eta tele.



KLB6

Kalebarren 6
 943 07 31 28
 kalbar-uta-rentzen
 maldagaitza

BSB Paga Jarna VERO MODA

SOLID ESCRIBIC

NEW BALANCE



MENDIZABAL
 okindegia

Ogia - Prentza - Gosariak

Astelehenetik ostiralera:
 08:00 - 13:00
 17:00 - 20:00

Larunbatak eta igandeak
 08:30 - 13:15

Kalebarren 10
 Tel.: 943 75 13 99



Txoko

Eguneko menuak, plater konbinatuak, hamburgerak, ogitartekoak, natiboak, pizzaak, gazakia...

Entzuguak agian dira
 Tel. 943 75 17 88



OKELA HARATEGIA

- Entzuguak hartzen ditugu
- Gertuko garndua
- Etxeko tripaki, txisterna, salbitza eta mingaina

Ebaluaranta 5
 telefonoa 943 75 23 75



FOGASLER
 ITURGINTZA

943 75 16 46 (Sorakuze) - 943 71 82 49 (Oñati)
 fogasleriturgintza@gmail.com



Kontulan

Aholkularitza fiskala - Kontabilitatea
 Lan-aholkularitza - Zerbitzu juridikoa
 Ticket bai - Outsourcing - Aseguruak

www.kontulan.com



MABEL
 ILUPAINDEGIA

- Laser depilazioa
- Keratina tratamendua
- Solariuma

Erreal 1
 Tel.: 943 75 14 89



BOLIT
 TABERNA

Pisozak, antzak, konbinatuak
 Gazte-giruko festa



MGS
 Seguros

Veronica Gallarraga
 Gertuko eta segurua

Astelehenetik ostiralera:
 10:00 - 13:30 eta 17:00 - 19:30

Santa Ana 13
 645 744 055



KM design

KIRIA MUNTATZAK

943 75 99 85

kiriamuntatzak@yahoo.es
 www.kmDesign.es

Pol. Amalago 3
 BERGARA

- Disainu eta Fabrikazio lanak
- Sukaldeak
- Horma-oinarriak
- Logelak
- Zonak
- Atrak...
- Arotzeria lanak oro har
- Instalazioak



Griado
 Fruitategia Urdaitegia

- Entzuguak Whatsapppe
- Etxerako zerbitzua
- Berriak & delicatessen

Astelehenetik ostiralera:
 09:00-13:00 eta 17:00-20:00

Larunbatak: 09:00-13:00

629 958 536



ION MURGIZU BAKAIKOA
 PINTOREA

antzerki dekorazioak
 industriala

Tel. 943 75 13 24 - Mug. 652 77 70 30



Almar
 ILUPAINDEGIA

Ilupaindegia
 Estetika
 Solariuma

Gabildeg 4, Añaboa
 Tel.: 943 75 13 11 - 642 51 14 94



Bidelagun euskaltzaletasunean

SOMABE Supporting your projects

aras

ALBISUA S.L.

laibi ELECTRICIDAD



"Bizi kalitatea hobetzeko balio du"

IÑAKI GOENAGA ENTRENATZAILE PERTSONALA

Iñaki Goenaga Aristik (Soraluze, 1994), IVEF ikasketak egin zituen Katalunian, 2015etik 2019ra. Hura bukatuta, Soraluzen bizi da eta entrenatzaile pertsonal lanak egiten hasi da.

Zer lortu nahiko zenuke?

Kirol mundua dut gustukoan, niretzat zein lanerako. Karrera amaitu nuenetik nabil horretan, hainbat herritan, entrenatzaile pertsonal modura. Bergarako kiroldegian, Elgoibarren, BSTn, Ondarrun... Soraluzen ez dago halako ezer. Hutsune hori eta nire nahia uztartuta, zerbait interesgarria irten zitekeela pentsatu nuen.


Dagoeneko hasita zaude?

Aurreko astean hasi nintzen (urtarrilaren hasiera), gutxi batzuekin. Momentuz, lagunak edo ezagunak. Baina ideia da adin guztiendako izatea.

Zer eskaintzen duzu?

Batez ere bakarkako entrenamenduak, binaka ere egin daiteke. Hainbat tokitan egin daiteke, egokituko naiz pertsonaren nahietara, kiroldegian, bere etxean, parkean (Txurrukeneko kalisteniaiko parkean...).... eta

"ORDUBETEKO SAIOAK DIRA ETA TARIFAK JENDEAREN ESKAERETARA EGOKITZEN DIRA"



Iñaki Goenaga.

etxean materialik ez badu, neuk eraman ahal dut. Neu egokitzen naiz jendearen beharretara edo helburuetara eta entrenamenduak ere horretara egokitzen dira, edozein profiletara. Presentziala zein online izan daiteke.

Kirolaria izan beharra dago?

Ez da zertan izan pertsona kirolari bat edo fisikoki ondo dagoena. Askotan kontrakoa; bere eguneroko jarduera batzuk egiteko mugak dituenarendako (eskailerak igo, erosketak etxera eraman...), oso ona da. Helburuak izan daitezke lehiatzea zein bizitzaren kalitatea hobetzea. Onura asko ditu. Adibidez, entrenamenduak planifikatzeak entrenamenduaren kalitatea hobetzen du; konstantzia handitzen da; norbere kabuz egitean baino gehiago exijitzen da... (Harremanetan jartzeko: 688640535. Plaentxitrainer@gmail.com).

Entrenatzeko eta lehiatzeko gertu

Urte berria hasteaz bat, Sora Rugby Taldeak hasi ditu berriro ere entrenamendu saioak. Kontatu dutenez, guraso batzuk hasi dira eguazteneroko saioetara joaten eta gogora ekarri dute ateak zabalik dituztela nahi duten guztiendako. Gainera, aurtan, Arrasatekoekin batera, partidetan parte hartzen hasteko aukera aprobetxatu nahi dute.

Asteburuan hasiko ditu Igoera faseak

Sora Futbol Taldeko Erregional zein Kadete mailako ekipoek asteburuan honetan izango dute Igoera faseko lehen hitzordua. Erregionalak Eibarko Unben jokatuko dute, Eibartarrak taldearen kontra, zapatuan, 17:45ean. Kadeteek, berriz, Ezoziko futbol zelaian jokatuko dute, Oñatiko Aloña Mendiren kontra, 16:30ean.

Denboraldiko bigarren fasean

Soraluzeko Pilota Elkarteko pilotariak denboraldiko bigarren fasean sartu dira urtea hasteaz batera. Gaztetxoek Gipuzkoako txapelketan, Errendimendu mailan ari dira lehiatzen. Nagusiak, berriz, Euskal Ligan eskuz binaka eta binaka, eta gomazko paletan zazpiaren barruan ari dira lehiatzen.

Aratosteak bertsio osotuan

Barikuan, Euskal Aratosteak ospatuko dituzte; zapatuan, lehiaketa izango da, Lanbideak gaiarekin eta martitzenean, koreografiak.

Otsailaren 17an, barikuan, hasi eta martitzenera bitarte, izango da zer gozatua Aratosteetan. Barikuan, Plaentxi Eskolako ikasleak izango dira mozorrotzen lehenak, Euskal Aratosten bueltan. Ondoren, Urrats Dantza Taldeak antolatuta, adin guztietako dantzazaleek dantza-kalejira egingo dute, herriko musikariek lagunduta; Inauterietako dantzak, polkak, mutxikoak... dantzatuko dituzte.

Zapatua eta martitzena

Zapatuan, berriz, *Lanbideak* gaia oinarri duen mozorro lehiaketa egingo da egun guztian zehar. Parte hartzeko, 13:00etatik 20:00etara Kontzejupean jarriko den photocall-ean argazkia atera behar da eta 699868729 Whatsapp zenbakira bidali. Zapatuan bertan, 13:00etan,



Umeen dantzaldia.

txaranga ibiliko da kalerik kale. Gauean, berriz, Liskerrek joko du Plaza Zaharrean. Azkenik, martitzenean, umeen koreografia erakustaldia egingo da kiroldegian 17:00etan, ostean buruhandiak eta gaiteroak eta azkenik, erromeria Joselu Anaiekin Plaza Zaharreko karpán.

Santa Eskeko kantujirak

Otsailaren 4an, Santa Ageda egunaren bezperan aterako da Santa Eskeko lagun taldea herriko baserrietara. Aurten, lehen aldiz, Onintza Enbeita bertsolaria izango dute kantulagun, Eneko Beretxinaga eta Iñigo Eizagirrerekin batera. Aurretik, otsailaren 1ean, eguazten arratsaldean, aterako dira Musika Eskolako eta bertso eskolako ikasleak kalera.

San Blas opil lehiaketa

San Blas opil lehiaketarako izen-ematea udaletxeko Harrera Bulegoan egin behar da, urtarrilaren 30etik aurrera, edo lehiaketaren egunean bertan, lehiaketa hasi baino 15 minutu aurretik. Lehiaketa otsailaren 3an, San Blas egunean, izango da, 12:00etan Plaza Berrian. 50, 30 eta 20 euroko hiru sari banatuko dira.

Txistu Kontzertua

Arrasate Musikaleko txistulari banda

EGUNA: OTSAILAK 11, larunbata

TOKIA: Soraluzen, Herri Antzokian

ORDUA: Eguerdiko 12etan

TXISTU 1.: Amets Pagaldai, Juan Karlos Larreategi

TXISTU 2.: Jone Usobiaga, Susana Roa

SILBOTEA: Domentx Uzin, Lander Diaz de Gereñu

PERKUSIOA: Julen Larreategi





Jose Ramon Piñeiro bere azken bi liburuak eskuetan dituela.

"Dolmenen Ibilbidean bizi da liburuko sorgina"

JOSE RAMON PIÑEIRO IDAZLEA

Azken hilabeteotan, bi liburu berri argitaratu ditu Jose Ramon Piñeirok (Mutriku, 1974): *La soberbia de Astaroth* eta *La Caja*.

Soraluzen, Iratxon eskura daitezke Piñeirok argitaratu dituen liburuak, baita azken biak ere: *La lucha contra el mal* sagako laugarren liburua den *La soberbia de Astaroth* eta *La caja*. Gainera, azken liburu horrekin Soraluzera ailegatu da Piñeiro.

Soraluze eta Mutriku, biak azaltzen dira *La Caja* liburuan.

Bai; liburu guztiak Mutriku hasten dira ni hangoa naizelako, eta oraingo liburuan Soraluze azaltzen da ni hemen

bizi naizelako. Are gehiago, *La caja*-ren jarraipeneko sorgina Dolmenen Ibilbidean bizi da eta Aida ertzain protagonista soraluzetarra da.

***La Caja* modu ez-ohikoan idatzi duzu, ezta?**

Bai, online, eguneko kapitulu bat idatzi nuen.

Zelan?

Wattpad web orrian. Han jendeak liburuak argitaratzen ditu eta politena da idatzi ahala irakurleen iritziak jasotzen direla. Wattpad ezagutu

nuenean, han argitaratzea erabaki nuen eta neuk hartu nuen konpromisoa egunero kapitulu bat idazteko. Gero damutu egin nintzen. Lanetik irten eta askotan bakarrik pintxo bat jan eta idazten jarri behar izaten nuen berehala. Oso gogorra egin zitzaidan, baina agindua eman nuenez...

Zelako harrera izan du?

Internetez (doan da Wattpad) 1.500 lagunek irakurri dute eta salmenta aldetik 233 bat ale saldu dira Internetez, gainerako salmenten berri ez daukat. Jendea zain egoten da, ez pentsa. Mezuak bidaltzen zizkidaten, eguneko kapituluaren eske. Orain, lantokian ere ari dira liburu eske.

***La caja*-ko kontakizuna ez zen bertan bukatu; noizko haren jarraipena?**

Hasita dago. Lehen kapitulua Errekalden hasten da, Baina hor geratzen da. Izan ere, ni jarraitzen nauten gehienak *La caja*-ren jarraipenaren zain daudenez, ezustekoa ematea erabaki eta *La lucha contra el mal* sagaren bosgarren liburua ateratzea erabaki dut lehenengo, beste batzuk haren zain daude eta istorio horrek ere bukatu beharra dauka. Oraingoz, *La oscuridad de Azazel* du izenburua, 2023an argitaratuko dut. **Eta *La caja*-ren bigarrena?** Hori ere aurtan, 2023aren amaiera aldera.

"WATTPAD-EN, JENDEAK MEZUAK BIDALTZEN ZIZKIDAN, EGUNEROKO KAPITULUAREN ESKE"

Suhagamer04, tiktokerra

SUHAGAMERREK 365.000 JARRAITZAILE DITU TIKTOK SARE SOZIALEAN

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: SUHAIB EL KANOUNI

Suhaib El Kanouni *Suhagamer04* (Soraluze, 2004) edonora joanda ere, ezagutu egiten dute, kalean geratzeraino.

Sare sozialen bidez egin da ezagun. 2018an hasi zen Youtuben, *Suhagamer* izenarekin; "PlayStation 4a erosi baino lehen pentsatuta nuen zerbait egitea; hura erosi eta berehala hasi nintzen", dio gazteak. FIFA eta Fortnite jokoan bideoak igotzen zituen gamer modura.

Bi urtez, "audientzia txikiarekin" ibili ondoren, Twitch-era ere sartu zen. Han, egunero apurtzen zituen ikusle-markak. Aldi berean, Twitcherako egindako zuzenekoan edukia TikTok-era igotzen ere hasi zen eta, gaur egun, zenbaki benetan deigarriak ditu *Suhagamer 04k*: 365.000 jarraitzaile TikTok-eko kontu batean; beste 70.000 jarraitzaile TikTok-eko bigarren kontu batean; 61.000 jarraitzaile ditu Twitchen zein Youtuben eta beste 13.600 Instagramen.

3, 4 eta 6 milio bisitaldi

Hori horrela, youtuber moduan hasi zen gaztea, orain, eduki sortzailea da. Umorezko bideoak igotzen ditu, gehienak futbolarekin lotutakoak eta asko Ezoziko futbol zelaian grabatutakoak. Kolaborazioak ere egiten ditu, denbora darama, adibidez, Alsa autobus konpainiarekin. "Gamer edukiarekin hasi nintzen; TikTok-en, berri, umorezko bideoekin. Jendeak azken horiek zituen gustuko eta halakoekin segitu nuen. Behin,



Suhagamer04 ordenagailu aurrean, sare sozialetan lanean.

baloiak bilatzea bururatu zitzaidan; bideo hark 4 milioi bisita eskuratu zituen. Zoramena iruditu zitzaidan, oraindik ere horrela iruditzen zait. Hori gutxi ez, eta bideoaren bigarren zatiak 3 milioi ikustaldi izan zituen, hirugarrenak 6 milioi... baloi bilaketarekin lotutako bideo guztiek gaingitu egin zuten milioi bateko ikustaldia. Orain, horrela ezagutzen naute, baloi bilatzaile modura. Kanean beti eskatzen didate *baloi bila* bideoen jarraipena egiteko. 30 baloi baino gehiago aurkitu nituen, baina denak bueltatu ditut; orain lauzpabost besterik ez ditut".

Dedikazio handia

Suhak ordu asko ematen ditu sareetarako edukia sortzen. "Hasieran erraza dirudi, baina lan egin beharra dago. Lehen asko. Egunean, sei ordu pasatzen nituen zuzenekoak egiten, bideoak egiten bi ordu

eta horri gehitu horrek guztiak atzetik duen lanketa. Asteburuan gutxiago, baina hor ere bai", dio.

Hortik bizi barik

Halako dedikazio handia eskaini, emaitza ikusgarriak lortu eta gustatuko litzaiokeen arren, *Suhagamerrek* ez du espero sare sozialetatik bizitzea. Uste du ez direla "betiko" izango, eta arriskutsu ikusten du haiekiko dependentzia. Are gehiago, berari gertatutakoaren ondoren: "Lehen, sare sozialetatik bizi ahalko nintzateke, baina adinez txikikoa nintzen. 18 urte bete behar nituen bezperan, TikTok-ek (700k jarraitzaile nituen) kontua eliminatu zidan. Oraindik ez dakit zergatik ofizialki. Orain badut beste kontu bat, baina sare sozialak ez dira betiko izango. Ezin duzu mendekotasun hori izan. Behin kontua duzu, gero itxi egiten dizue..."

Milioi bat jarraitzaile


Kontuak kontu, oraingoz, sareetan aurki dezakegu Suhagamer, guztiz indarberrituta, TikTok ipar duela. "Orain astebete dena lagatzeko gogoia nuen. Etenaldia egin nuen TikTokekoa eta gero, gainera ez neukan denbora larregi. Orain, berriz, dena emateko gogoia daukat. Denbora libre gehiago daukat eta hasita nago bideoak igotzen". Batik bat, TikTok-en. Youtubean, shorts-ekin (bideo motzekin) lortzen ditu bisitaldiak, baina 10 minutuko bideo normalek ez dute emaitza bera ematen. Gainera, "konstanzia" eskatzen du Youtubek eta ez du bere burua hor "ikusten. Aldiz, argi du TikToken zer lortu nahi duen: "Komunitate egonkorra, milioi bat jarraitzaile eta umeak futbolarekin lotutako bideoekin entretenitzea, halako bideongatik ezagutzen naute eta beste zerbait egiteak ez luke zentzurik izango", dio.



Suha Twitcheko idazkiaren aurrean.



Suha Sorako jantzita, tiroak egiten.



Suha ordenagailu aurrean.

ZORION AGURRAK



Amets Caballero Ruiz

Urte bat. Zorionak gure bizipozari, jarraitxu beti bezain alai eta kurioso! Etxekuen partez.



Ekain Arana Lobato

Urtarrilaren 21ean 3 urte. Zorionak! Asko maite zaitugu! Aita, ama eta Estitxun partez!



Vicenta Gabilondo

Urtarrilaren 22an 105 urte. Zorionak! Gasteizen ospatuko ditugu zure alabekin, bilobekin eta birbilobekin. Muxu pilo bat.



Urko Lazpita Ormaetxea

Urtarrilaren 19an urte bat. Zorionak etxeko guztien partez.



Enara Agirre

Urtarrilaren 10ean 40 urte. Zorionak Enara!



Amaia Agirre

Urtarrilaren 22an 48 urte. Zorionak Amaia!

Urte askotarako!

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu:

Internet

Plaentxia.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://plaentxia.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta hilabeteko azken ostiralean aldizkarian.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@pilpilean.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Maria Pilar Elorza Elcoro

Luis Moreno Gil

Mari Carmen Suarez Vallejo

Purificacion Corchero Vega

Jaiotakoak

Ihintza Heriz Gerrikagoitia

Amir Elaissati Astigarraga



Comité Vasco de Colegios de Administradores de Empresas de Euzkadi

Euzkadi, Euzkadi, Euzkadi, Euzkadi, Euzkadi



ROSA M^a
PINTADO

Etxaldean Administrazioako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikasketxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net

Duela 25 urte, **Zuzenbide eta Psikologia ikasketak** amaitu ostean, estatu mailako Finken Administrazioako Masterraren eta Gradu Ikasketen ardura hartu nuen Alcalá de Henaresko Unibertsitatean. Hamar urtez ehunka profesional trebatu eta gero, komunitateak administrazioa zerbitzua eskaintzen duen enpresa sortu nuen eta ordutik horretan dihardut.

Esperientzia luzea dut ofizioan eta jabe-komunitate batek behar dituen zerbitzu guztiak eskaintzen ditut: legearen ikuspegitik, administrazioak eskatzen dituenak; eta ikuspuntu praktikoa eta bizikidetzaren ikuspegitik, nire bezeroek eskatzen dituztenak. Profesionaltasunez, errespetuz eta apaltasunez lan egiten dut eta hurbileko arreta eskaintzen diet bezeroei, horixe baita ezagutzen dudan bide bakarra gauzak ganoraz egiteko.

Nire bezeroak, batez ere, Debarrenakoak dira, eta zorionez, **Soraluzen ere badituz bezeroak**, urte luzez nire zerbitzuak baliatzen dituztenak. Elgoibarren bizi naiz eta niretzat oso erosoa da Soraluzen lan egitea, horregatik erabaki dut soraluzetarrei nire zerbitzuen berri ematea. Zuen zerbitzura nago.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2. Elgoibar.

bertako

igogailuak | ascensores

-REKIN BAI!

GIPUZKOA

943 903 450

DROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzueri



www.bertako.eus

AISA

harrera-ikastaroak

Iraupena: 60 ordu. 4 ordu astean. Otsailaren 14tik ekainaren 8ra.

Ordutegia: Astearte eta ostegunetan, 10etatik 12etara.

Matrikula: Debalde.

Izen-ematea: Udaletxeko harreran edo 943 75 30 43 telefonora deituta. Otsailaren 3a baino lehen.

Oharra: Aisa agiriak aukera ematen du Enplegu Planeko kontratazio prozesuetan parte hartzeko.



**Animatu Euskara ikastera!
¡Anímate a aprender Euskera!
Take a chance and learn Euskara!
N'hésitez plus, apprenez l'euskara!
لا تتردد بعد الآن ، تعلم لغة الباسك!**

Antolatzailea: Logantzailea:



HAURRENTZAKO ZINEMA

Arratsaldeko Setan Antzokian

TRASH

Otsailak 5



Zuzendaria: Francesco Dafano eta Lucca Della Grotta
Herrialdea: Italia
Urtea: 2020
Iraupena: 88 min
Hizkuntza: Euskara

AINBO

Otsailak 26



Zuzendaria: Jose Zelada eta Richard Claus
Herrialdea: Peru
Urtea: 2021
Iraupena: 90 min
Hizkuntza: Euskara



ROSA M^o PINTADO

Komunitateen administratzailea
749 kolegiatu zenbakiduna

660 969 679 / 943 742 184
rosapf@telefonica.net



KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA SORALUZEN



Arreta

- Bezeroarentzako arreta 365 egunez
- Kudeaketa serioa, zintzoa eta pertsonalizatua
- Eskubideen eta betebeharen gaineko informazioa
- Akordioak izenpetzeko aholkularitza juridikoa
- Bitartekaritza lanak
- Behar beste ezohiko bilera

- Komunitatearen agiriak eskuratzeko aukera
- Jabeel kontuen gaineko informazioa komunikatzea
- Komunitatearen egoeraren gaineko hileroko laburpena
- Datu eguneratuak, eskura

Gardentasuna



Kontrola

- Aurrekontuak aztertu eta kudeatzea
- Tramiteak notaritza eta erregistroetan
- Lanak ikuskatzea
- Kontratuak egiaztatzea
- Zor diren kuoten jarraipena eta kudeaketa

25 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA PROFESIONALA

administradores

Consejo Vasco de Colegios
de Administradores de Fincas
Euskadiko Finka Administrazioaleen
Lurralde Kontseilua

